

# Abilezia diskurtsiboen bereizketa 9-10 urteko haurrengan

(Discours abilities on children being nine or ten)

Bilbao Ibarra, Lorea

Eusko Jaularitza. Kultura Saila. Euskara Sustatzeko Zuzendaritza.  
Donostia-San Sebastián, 1 – Lakua. 01010 Gasteiz

Ocio Endaya, Begoña

Begoñako Andra Mari Magisteritza Eskola. Barraincua, 2.  
48009 Bilbo

BIBLID [1137-4446 (2005), 14; 71-86]

Jaso: 05.03.10

Onartu: 05.05.18

---

*Lan honek bederatzi eta hamar urteko umeengan egindako analisiaren emaitzak islatzen ditu. Bere helburuan umeen abilezia diskursiboen erabileraren gaitasuna egiaztatzea izan da, argi bereiztuta narraketa eta argudio testu idazketaren esparruan, Genevako (Bronckart) ereduaren arabera zehaztuta. Artikulu honetan hartutako irizpideak, frogak eta jasotako emaitzak bilduta daude. Ondorioetan zatikako hurreratze honetatik ateratzen diren jarraibide didaktikoak daude.*

*Giltza-Hitzak: Abilezia diskurtsiboak. Narrazio testuak. Argudio testuak. Testuinguraketa. Planifikazioa. Konexibitatea. Enuntziatio jarrera.*

*El presente trabajo refleja los resultados del análisis efectuado entre niños de nueve y diez años. Su objetivo era comprobar la capacidad de utilización de las habilidades discursivas en estos niños, diferenciando claramente la narración y el ámbito de redacción del texto argumentativo, según el modelo de Ginebra (Bronckart). En el presente artículo se recogen las opiniones, pruebas y resultados obtenidos. En las conclusiones figuran las pautas didácticas que se deducen de esta aproximación parcial.*

*Palabras Clave: Habilidades discursivas. Textos narrativos. Textos argumentativos. Contextualización. Planificación. Conexividad. Actitud enunciativa.*

*Ce travail reflète les résultats de l'analyse effectuée parmi des enfants de neuf et dix ans. Son but était de vérifier la capacité d'utilisation des habiletés discursives chez ces enfants, en distinguant clairement la narration et le domaine de rédaction du texte argumentatif, selon le modèle de Genève (Bronckart). Dans cet article on recueille les opinions, les témoignages et les résultats obtenus. Dans les conclusions figurent les règles didactiques déduites de cette approximation partielle.*

*Mots Clés: Habiletés discursives. Textes narratifs. Textes argumentatifs. Contextualisation. Planification. Connexivité. Attitude énonciative.*

## 1. SARRERA

Lan hau egiteko ikuspegi didaktikotik abiatu gara. Haurren aurrezagutzak aztertu eta aurrerantzean egitear gelditzen jakezan ikaskuntzak zeintzuk diran ikusi nahi izan dogu. Helburua ez da izan adin konkretu bateko haurren garapen psikologikoaren karakterizazioa egitea

Lanaren edukiak gaitasun diskurtsiboaren arloan kokatzen ditugu eta ez gaitasun linguistikoetan (fonetika, lexikoa, morfosintaxia...). Hau da, landutako edukien esparrua abilezia diskurtsiboena da, honeik kontestuairen lotura eta barne koherentzia eraikitzen dabe.

Zentzu honetan lan hau bideratu daben galderak hurrengoak dira:

- Adin honetako haurrak bereizten dabez narrazio eta argudiozko testuak sortzeko beharrezko diren abileziak?
- Zeintzuk dira haurrak testu bakoitza eraikitzeko abilezietan aurkitzen dabezan zailtasunak?
- Horren arabera, zeintzuk dira eskoleak ziurtatu beharko leukezan eza-gutza diskurtsibo testualak?

## 2. MARKO TEORIKOA

Lehenengo eta behin kontzeptu batzuk argitzeari ekingo deusogu: narrazio eta argudio testuen bereizketeari eta abilezia diskurtsiboen ezaugarritzeari.

Kontzeptu honeik Bronckart eta Ginebrako ekipokoen teoretan oinarrituta dagoz (Bronckart eta kol., 1985; Bronckart, 1996). Testu tipologia honen interesa bere ikuspegi didaktikoan datza, teoria horretan oso argi azaltzen jaku eta, testuan agertzen diren espresioak eta hiztunak kontestura egokitze-ko erabilitako operazioen arteko lotura zertan dan.

Hiztunak egoera komunikakorrera egokitu ahala testuairen barne koherentzia mantentzeko erabili dituen estratejiak testuan agertutako espresioak adierazten dabez.

**Narrazio testua:** kontestualizazio ikuspegitik erreferentea enuntziatio gunetik at kokatzen da, beste denbora eta toki baten.

Testuairen barne ikuspegitik testu honen sekuentziatio eredua, Adamek (1984) definitutakoa izango da, hots, hasierako egoera, egoera hori deuseztuko dauan elementua, gatazkaren garapena, gatazkaren konponbiderako elementua, irteera eta koda (Adam, 1990 eta 1994).

**Argudio testua** dinogu eta ez iritzi testua, hau zentzu zabalagokoa litzateke guk planteatzen doguna baino. Kontestualizazio ikuspegitik enuntziazio gune barruan kokatuta dago denborari dagokionean, baina inportantea da bereiztea emisorea autore moduan inplikatzan dan heinean, erreferentea errealtate autonomo legez agertzen dala.

Testuaren barne ikuspegitik Adamen sekuentziazio eredua hartuko dogu (Adam, 1994): polemika sortarazi dauan gertaerearen aurkezpena, autorearen jarrera eta behar bada baita beste batzuena be, autorearen aldeko argudioak, kontsezinoak, kontraargudioak, eta konklusinoak.

Abilezia diskurtsiboei dagokienean hurrengoak dira kontuan hartu doguzanak.

Abilezia diskurtsiboak ohiko elkarreraginean garatzen diran gaitasun soziokognitiboaren ondorioak dira (Dolz, Pasquier eta Bronckart, 1994).

Ginebrako ekipoak eragiketa diskurtsibo moduan karakterizatu dabez abilezia diskurtsiboak, testuko hitzak aukeratzera eroango gaituen erabagi moduan (Bronckart, 1985; Dolz eta Schneuwly, 1998). Erabagion arabera testu mota bakoitzerako estrategiak sortuko ditugu testuak egoera komunikorrera egokituz. Hiru dira bereiztuko ditugun eragiketa multzoak: testua eta ainguraketa lotzekoak, testu barneko loturak garantizatzeak eta diskurtso osoa hartzailearen aurrean aurkeztekoak.

Abilezia honeik bereziak dira egoera komunikakor bakoitzerako. Ez dira testu mota batetik bestera transferitzen baina bai ahozkotik idatzira.

Gauzak horrela, frogearen diseinuaren oinarrian dagoen ideia hau da: testuaren ezaugarriak, eragiketa diskurtsiboak eta egoera komunikakorrek baloreen arteko lotura jakina da. Beraz, konsignak testuinguruaren baloreak behar bezela definitu ezker, honeik haurren lana egoki bideratuko dabe, eta eurak sortutako testuetan egoera bakoitzerako abilezia diskurtsiboak agertuko dirala.

### 3. FROGEAREN DESKRIBAPENA

Batutako testu korpusa 30 narrazio testu eta beste 30 argudiozko testuk osotzen dabe. D ereduko hiru ikastetxetan batu doguz eta irakaskuntza hizkuntzan egindako idatziak dira.

Azterlan honen bidez irakasleak D ereduko bigarren zikloan aurkitu daikezan egoera didaktiko desberdinak karakterizatu nahi doguz.

Ondoren ikasleen lana bideratzeko erabilitako konsignak aurkezten ditugu. Horretarako kontuan hartu doguzan eragileak honeixek dira: Kasu bietan dago hasierako testu bat eta horren inguruko birformulazioa da eskatzen jakena. Arrazoiak bi dira. Alde batetik nahi dogun testu mota eragiten dogu

eta bestetik gitxienezko eduki komun bat ziurtatzen dogu haur guztientzat. Haurren artean abilezia diskurtsiboetatik kanpo egon daitekezan desberdintasun indibidualak ekiditzea lortu nahi dogu.

Honetaz gain kontsigna egiterakoan helburu eta hartzailearen testuinguru eragileak argi emoten ahalegindu gara. Honenbestez erabilitako kontsignak emongo ditugu.

Narrazio testurako kontsigna:

“Idatz ezazu irakurri berri duzun otsoa eta bildotsaren ipuina. Idatzi zeure erara. Etzazu laburpen bat egin. Ipuina idatzi. Saia zaitetz emozioa ematen. Otsoaren indarra eta bildotsaren beldurra sentiaraztea lortu behar duzu.”

Argudio testurako kontsigna:

“Alexisek, beste ume batzuk bere gurasoei gutun bat idaztea behar dau, hareik konbenzitzen laguntzeko eta holan txakurra eukiteko baimena lortzeko. Idatzi gutun bat Alexisen gurasoei baimena eskatuz eta konbenzitzeko arrazoiak emonaz.”

#### **4. EMAITZEN ANALISIA**

Emaitzen analisirako erabili dogun prozedura be, Ginebrako eskolakoak erabiltzen dabena da (Bronckart eta kol., 1985). Testu mota bakoitza estrategia diskurtsiboen arabera ezaugarritzeko eragiketa diskurtsibo bakoitzeko testu unitate bereziak erabiltzean datza.

Ezaugarritzea egiteko erabili ditugun abilezia edo eragiketa diskurtsiboak hurrengoak izan dira:

**Ainguraketa enuntziatiboa** edo gaiaren lokalizazioa. Erreferentearen denpora eta toki deixiaz ari gara. Haurrak diskurtsoa era kontestualizatu edo autonomoan eraikitze daben gaitasuna ikusi nahi dogu (Benveniste, 1974 eta 1977; Bronckart, 1996).

Testuaren barne ikuspegitik ondorengo eragiketak hartu ditugu kontuan. Testuaren planifikazioa, gaien eta predikatuen kohesioa eta konexibitatea.

**Testuaren planifikazioa.** Hitzunaren asmo komunikakorren garapenari zentzua emoten deuten testu sekuentziak, testuaren sarreratik amaierara. Aztertu gura dana da haurrak zein neurritaraino egokitzen daben euren testu plana sekuentzia eredu konbentzionaletara (Adam, 1994).

**Testuaren kohesioa.** Zentzu hertsian darabilgu hitz hau gaia eta predikatuen arteko harremana mantentzeko erabilitako testu barneko prozedura adierazteko. Asmoa haurrak sistema anaforikoez daben jabetze maila daben ikustea da (Van Dijk, 1980; Bronckart, 1996; De Weck, 1991).

**Konexibitatea.** Ahapaldi bakoitzaren barnean egindako esaldien arteko loturak (Schneuwly, 1988).

**Enuntziazio jarrera** edo diskurtsoaren aurkezpena: hartzailearen errezeptorako jarreraren aurrean diskurtsoa aurkezteko modua. Hartzailearen errezeptorako jarreraren irudiak bideratuko dabez igorlearen eta enuntziazioen modalizazioei dagokiezan erabagi testualak (Bronckart, 1996). Haurrak euren testua argumentatzerakoan hartzailea dagokion eran inplikatzeko testutik urruntzeko gai diran konprobatuko dogu (Golder, 1993 eta 1996).

## 5. EMAITZEN DESKRIBAPENA

Emaitzen deskribapena egiteko jarraituko dogun eskema hauxe izango da. Lehenengo eta behin operazioz operazio testu mota bakoitzari dagokion estrategia diskurtsiboa aipatu, horren ostean umeen testuetan agertzen diran estrategia horrein barianteak zeintzuk diran komentatuko dogu, guztiak, egoki eta desegokiak, eta amaitzeko operaziooi begira eskolak landu beharreko abileziak zeintzuk diran adieraziko dogu.

### 5.1. Narrazio testuetako emaitzak

Narrazio testuetan **ainguraketa enuntziatiborako** estrategia egokiak erreferentea enuntziazio toki eta denpora desberdin baten kokatuta dagoela erakutsi behar dau.

Ipuinetan sarritan ainguraketa mota hau eta elkarrizketazko ainguraketa tartekatuta egoten dira. Kasu honetan testuan diskurtso batetik bestera pasatze hori markatu egin behar da.

Haurren testuetan aurkitu doguzan aldakiak honeik izan dira: Diskurtsoaren aldaketa ondo markatuta %40; nahiz eta zuzen, narratu bakarrik egiten dabenak, %10. Diskurtso aldaketak ezelango marka barik %3.3, eta toki denporaren lokalizazioan akatsen bat agertzen daben haurrak %46.6 dira. Azkenengo kasu honetan akatsik ohikoena narrazioaren tokia ez aipatzea da eta denporearen kasuan pasajeren baten orain aldia sartzea.

**Planifikazioari** dagokionean narrazio testuetan aurretiaz aipatu doguzan hasierako egoera, egoera hori deuseztuko dauan elementua, gatazkaren garapena, gatazkaren konponbiderako elementua, irteera eta koda agertzea da egokia. Kodaren faltak ez dau apurtzen testu osoaren koherentzia baina aipatutako beste edozein faseetariko baten faltak bai osteria.

Haurren testuetatik atara doguna hauxe da: Lehenengo eta behin, jatorrizko testuan koda esplizitoki agertu dan arren, ume bakar batek be ez dau kodarik jarri bere testuan. Koda albo batera itxiz beste faseei dagokienean, esan behar da %40k markatu dituela beste fase guztiak. Beste %43ak faseren bat itxi dau esplizitatu barik, eta %16.6ak ez dau erakusten ezelango planifikazio asmorik.

Beste eragiketatariko bat **gaien kohesioa** da: narrazio testuetan pertsonaia bakoitzaren jarraipena argumentu osoan zehar erakusten dau, baita pertsonaia desberdinen arteko harremanak zeintzuk diran be. Horretarako estrategiarik aberatsenak erabiltzen dabezanak baliabide linguistiko honeik konbinatuko dabez: artikuluen alternantzia, elipsiak, izenordeak, eta ordezkapen lexikalak.

Haurren testuetan guzti horreik %13.3an agertzen dira. Gehienetan, %40an, artikuluen alternantzia eta elipsia bakarrik erabiltzen dabez. Hortik aparte estrategia desagokiak be kontatu doguz, adibidez beharrezko ez diran errepikapenak %30 testutan eta elipsi desagokiak, testuan anbiguitatea sortarazten dabenak %16.6 testutan aurkitu ditugu.

**Predikatuen kohesioa.** Narrazioaren argumentua arintasunez egiteko beharrezkoa da igorleak errekurtsioak izatea komentarioak egin eta istorioaren ibilbidean aurrera atzera joateko. Horretarako ezinbestekoa da esaldi arteko konektoreak erabiltzea eta aditzen arteko denbora desberdinak konbinatzea. Halan eta guztiz ere nahiz eta estrategia aberatsa ez izan badago gutxienezko bat guztiz beharrezkoa narrazioari predikatuen arteko kohesio egokia emoteke. Zentzu horretan lehen aldi burutugabea da, ekintza nagusi inguruko marku edo gertakizunak adierazteko, eta burutua gertaera nagusiaren haria mantentzeko.

Haurren testuetan topatu doguna hurrengoa da. Alde batetik estrategia aberatsa %6.6k erabili dau eta gutxienezko estrategia %70ek. Hortik at hutsune batzuk agertzen dira. Alde batetik orain aldia sartzen dabenak %10 dira eta lehenaldi burutua bakarrik %13.

**Konexibitatea.** Esaldien arteko loturak ezartzeko errekurtsio mota bi bereiztu doguz azterketarako. Puntuazioa batetik eta konektoreak bestetik. Puntuazioaren bitartez esaldi desberdinak bereizten dira eta zati narratibo eta alkarriketakoak. Konektoreen bidez ostera ideien arteko lotura logiko edo kronologikoak adierazten dira.

Puntuazioari dagokionean ondo puntuatzen dau %46.6k, akatsak egiten dauz %40k eta puntuaziorik erabili barik osotzen dau testua %13.3k.

Konektoreei begiratzuz bariazio honeik batu doguz: konektoreen sistema aberatsa erabiltzen dabenak %36.6 dirala, konektore gutxi erabiltzen dabe %13.3k eta %50ek konektore gutxi eta errepikatuak.

Konektoreen kasuan sarri askotan errepikapenak sobran dagozala ohartu gara, hau da errepikapen horreik kendu eta euren tokian puntuak jarri ezkerro askoz hobeto mantenduko litzatekeela testuaren konexioa.

Narrazio testuetan enuntziazio jarrerak ez dau erakusten distantziarik diskurtsio eta errealtatearen artean. Diskurtsioa eta errealtatea bat datoz. Estrategia horren adierazgarria testuan igorle eta modalizazioaren ponderaziorik eza izango dira. Haurren %100ak horrela egiten dau.

## 5.2. Argudio testuetako emaitza

Argudio testuetan **ainguraketa enuntziatiboa** egiteko erreferentea enuntziazio egoera barruan sartzen da (orain aldian), tokiaren erreferentzia ez dago zertan esplizitatu, eta solaskideei begira bereizketa bat egin behar da: diskurtsoaren autoreak bere burua testuan inplikatu eta erreferentearen aktantea modu autonomoan aurkeztu behar dau.

Haurren testuetan erreferentea toki-denboran ondo lokalizatuta agertzen da. Baina desberdintasunik handienak solaskideen lokalizazioan agertzen dira. Desberdintasun horreik karakterizatzeko hiru estrategia batu doguz. Emisorea eta gertaerearen protagonista bereizten ez dabezanak doguz, %36.6. Kasu honetan haurrak testu autobiografikoa egiten dabe. Haur gehienek, %56.6k, ondo bereizten dabez testuaren autorea (eurak) eta gertaerearen protagonisteia (Alexis). Kasu berezi bat egon da, deszentrazioa+generalizazioa erabiltzen dauan haur bat: Polemikearen motiboa gertaera orokor bat moduan agertzen da (txakur bat eukitea), ez gauza autobiografiko moduan ezta gertaerearen protagonistaearen arazo moduan (Alexisen arazoa).

**Planifikazioari** dagokionean argudio testuetan aurretiaz aipatu doguzan gertaerearen aurkezpena (polemika sortarazi dauanarena), autorearen jarrea eta behar bada baita beste batzuen be, autorearen aldeko argudioak, kontsezinoak, kontraargudioak eta konklusioa aurrikusten doguz fase egoki moduan. Fase guzti honeik erabiltzeak negoziazioari begirako estrategia landuena erakusten deusku. Hortik at badagoz beste gutxienezko eredu batzuk, negoziazioa bideratzeko hain egokiak ez izan arren argumentazio koerentea erakusteko egokiak direnak. Zentzu honetan C. Golder eta beste batzuk onartzen dabenari jarraituz gutxienezko argudio planifikazio moduan beharrezkoa izango da autorearen jarrera eta argudioak erakustea (Golder, 1992 eta 1996).

Haurren testuetatik atara doguzan aldaerak honeik izan dira: Argumentazio landua, kontsezino eta guztikoa kasu bakarrean. %36.6 kasutan gertaera, argudioak eta autorearen jarrera bereiztuta egon dira. Proporzio bera aurkitu dogu planifikazio minimoa erabili dabenen artean (jarrera eta argudioak). Gai-nontzekoak, %30ak, ez dau planifikaziorik agertu. Azken honeik bizitako esperientzien kontakizun baten antzerako testua lortzen dabe.

Beste eragiketetariko bat **gaien kohesioa** da. Argudio testuetan gaien kohesioaren funtziorik bereziena testuan zehar gertaera polemikoaren berreskuraketa anaforikoaren bidez hartzailea aldeko edo kontrako jarrera hartzera bideratzea da. Kasu honetan adibidez, “txakur bat eukitea” testu amaieran “esperientzia polit hau” izatera pasatuko da autoreak horren aldeko jarrera dauanean edota “horrelako txarrikeria” autorearen jarrera kontra-koa danean

Haurren testuetan sustituzio lexikal honein erabilera kasu bakar baten agertzen da balorazio positiboa inplikaturik. Ume gehienek, %50ek, ez dabe

polemikaren motiboa testuan zehar berreskuratzen. Lotura anaforikoak erabiltzen dabezanean Alexisen ordezkapena egiteko erabiltzen dabez berau argudio desberdinen protagonista moduan erakutsiz. Deszentrazioaren falta eta planifikazio falta erakusten dabenak ez dabe lotura anaforikorik egiten, enuntziatu guztiak fokalizatzen dabez “ni”aren ikuspegitik. %43.2 dira.

Argudio testuetako **predikatuen kohesioa** orain aldiko subsiteman burutuko da. Gaiaren aurkezpenerako lehen eta orain aldia konbinatuko dira eta argudioen aurkezpenerako gero aldia. Argudioen denporea itunaren formula-zioak baldintzatzen dau. Testuaren amaieran posiblea da agintera agertzea eskaera formula bideratzen. Egiteraz gain ahalera eta baldintzak be erabili daitezke argudioak baldintzatutako negoziazio modua hartu ezker.

Erizpide honeik jarraituz umeen artean aurkitutako aldaeren artean %16.6k “oraina + geroa + baldintza - ondorioa edo ahalera” erabili dau, %20k “iragana + oraina + geroa + agintera” eta ume gehienek, %63.3k, “oraina + geroa” erabiltzen dabe.

**Konexibitatea.** Argudio testuetan be narrazio testuetan egindako lez esaldien arteko loturak ezartzeko errekurso mota bi bereiztu doguz azterketarako, puntuazioa eta konektoreak. Puntuazioaren bitartez esaldi desberdinak eta argumentazioaren fase diferenteak bereizten dira (gertaera polemikoaren aurkezpena, argumentuak eta eskaerea). Konektoreen bidez osteria ideien arteko lotura logikoak adierazten dira. Argumentuen lotura egiteko konektore kausalak eta helburuzkoak aurkitzea espero izan badogu be, testu batzutan %26.6an aurkitu doguna baldintzaren erabilera izan da (heldueak umei egiten deuten ereduari jarraituz: “...egiten badozu...emongo deusut”).

Puntuazioari dagokionean ondo puntuatzen dau %33.3 umeak, akatsak egiten dauz %46.6k. Amaitzeko puntuazio egokia baina parrafo bereizketarik egin barik osotzen dau testua %20 umeak.

Konektoreei begiratzat datu honeik batu doguz: konektoreen sistema aberatsa erabiltzen dabenak (-lako, -teko, ba, orduan, baina, ...) %40 dala, “eta” konektorea bakarrik erabilten dauala %30ek eta gainontzeko %30ak konektore bako testuak egiten dituela.

**Enuntziatio jarrera.** Narrazio eta argudio testuetako enuntziatio jarrerak estrategia guztiz desbardinak dabez. Argudiozkoetan igorleak bere burua inplikatu behar dau bere diskurtsoa hartzailearen aurrean justifikatzeko. Horretarako eskaera eta argumentuak erlatibizatu egin behar dauz. Hartzaileagaz negoziatu egin behar dauz komenigarritasunak, nahiak, derrigorrekoak...

Euren burua ziurtasuna erlatibizatzen inplikatzan dabenak %20 dira. Derrigortasunak, nahiak, ahalak, e.a. hartzaileagaz negoziatzen dabezanak %36 dira. Beste %43ak ez dau erabiltzen modalizaziorik jarrera erlatibizatu edota hartzaileagaz negoziatzeko.

## 6. KONKLUSIOAK

Hasieran proposatutako lehenengo itaunari jagokonean, bederatzi-hamar urteko haurrak, narrazio eta argudiozko testuetarako behar diren abileziak bereizten dabezala ikusi dogu. Adibide moduan gogoratu daigun planifikazioaren kasuan, narrazio testuetan %16 bakarrik direla planifikazio asmorik adierazten ez dabenak eta argudio testuetan %30 (Adib.: N2 eta A4).

Bigarren itaunari erantzuteko eskoleak ziurtatu beharko leukezan ezagutza diskurtsibo testualak zeintzuk diran laburbiltzeari ekingo deustogu. Horretarako paraleloan ikusiko ditugu testu mota bakoitzeko eragiketetan bideratu beharreko estrategiak.

**Ainguraketa enuntziatiboari begira** narrazio testuetan kontatzen dan istorioa toki konkretu baten kokatzearen beharrianaz jabetzen lagundu behar deustegu umeei. Beste zereginetarikoa bat haurrak, zati narratibo eta alkarrizketakoak tartekatzeak marken erabilera trbatzea da.

Argudio testuetako kasua desberdina da, zailtasuna deszentrazioan datza. Ez dabez bereizten testuan enuntziatio eta erreferentearen egoeren errepresentazioak. Beharrezkoa izango da eskaerearen autorea eta arazoaren protagonista bereizten laguntzea. Beste norbaiten izenean eskaerak egiten irakatsi behar jake, horretarako dagozan formulak edo esapideak emonaz (Adib.: A2).

**Planifikazioari** begira narrazioaren kasuan konfliktuaren garapena eta konfliktuaren konponbiderako elementuaren garapena zelan eroan aurrera landu beharko da horretan agertzen dabe eta zailtasuna. Bestalde planifikazio falta erakusten dabenakaz lan berezia egin beharko da edukiaren egitura-keta ere landuz (Adib.: N2 eta N3).

Eskoleak zeregin gehiago izango dau argudio testuetan: hurrei fase desberdinak ezagutarazi eta testuan egituratzen lagundu beharko Deusto (Adib.: A4 edota A3 zeinek planifikazioaren baldintza minimoa betetzen dauan nahiz eta gaiari ez lotu).

**Gaien kohesioa.** Narrazioetan pertsonaien jarraipena lortzeko testuan zehar errepikapen desegokiak desagertuarazi behar dira (Adib.: N4). Horrez gainera batera errekurtsio ugari eskeini behar jakez ordezkapen lexikalak egin ahal izan daiezan.

Argudioetan be errekurtsio anaforikoak aberastu behar dira. Funtzioa, gertaera polemikoaren jarraipena testu osoan zehar ziurtatzea da. A1 testuan esate baterako nahikoa ondo erabilia dagoz elipsiak "txakurra" hitza ez errepikatzeak. A2 testuan oso ondo errekuuperatuta dago gurasoen jarrera osoa "zuen iritzia"-ren bitartez.

**Predikatuen kohesioari** dagokionean narrazio testuetan aditz denporen erabilera aberastean dago lana, baina kontuan izan behar dogu hori ez dato-

rrela aditz konjugazioa ikastetik. Argumentuei komentarioak egiten, zehar estiloa erabilten, aurreko eta osteko ekintzen arteko loturak egitearen kontzientzia hartzen trebatu behar doguz umeak.

Argudio testuetan denporeak baino joko gehiago emongo deutse aditz moduen konbinaketeak. Honek argumentuak justifikatzea posible egingo daben egoera hipotetikoak bideratzen dauz. Gainera igorleak hartzaileak derrigortasun edota nahi batzuk onartzea nahi dau eta horrein negoziatzioa be bideratuko dabe aipatutako modu aldaketok. 30 testutik 12k orain aldia eta gero aldia konbinatzen dabez, 2k bakarrik dira 5 forma desberdin konbinatzen dabezanak eta 3k denpora bakarra agertzen dabe testu osoan.

**Konexibitateari buruzkoan** bai narrazioan baita argudioetan be uste dogu puntu eta jarraia erabilteak ez daukala zerikusirik testu bi honein estrategiez. Markatzen dauan bakarra enuntziatuen arteko banaketa beharraren kontzientzia baino ez dalakoan gagoz eta hori edozein testuri dagokiona da. Baina puntu eta apartearen erabilera testuaren planifikazioaz daben irudiaz lotuta dagoela ikusi dogu. Honela narrazioetan umeak narratzaile eta pertsonaien diskurtsoak bereizten dabez; eta argudio testuetan gertaera, argumentuak eta azken eskaera (Adib.: N1 eta A2).

Konektoreak dirala eta, narrazio testuetan zentzu bitako lana dago. Bate-tik argumentuari egindako komentarioen aberastea eta horregaz batera, lokailu eta atzizki sistema bera be aberastu beharra. Bestetik, lokailu desgokiak eta larregizko errepikapenak ezabatzea. Adibidez N1 testuan planifikazioa oso ondo eraikita egon arren konektoreen urritasuna agirikoa da: “eta orduan”, “eta orduan”, “eta orduan”, “eta”, “eta”, “eta”

Argudioetan argumentu desberdinen aurkezpenak horretarako lokailu logikoen aukeraketa eta erabilera ekarriko ditu.

**Enuntziazio jarrera** da gelditzen jakun azken eragiketee. Narrazio testuetan haurrak balorazio subjektiboak modu inpertsonalean egiten ikasi behar dabe.

Argudio testuetan argumentuak eta jarrera hartzea ezin dira beste barik agertu. Haurrak igorleak hartzailea erakartzeko erabili daikezan formulak eskuratu behar dauz. Ziurtasuna indartzen edo erlatibizatzen ikasi beharko dau, era honetan hartzailearen diskurtsoarekiko jarrera egokia lortzeko (Adib.: A1ean “zuk erabaki baina egon ziur...” eta A2an “nere ustez zuen eritzia...”).

## BIBLIOGRAFIA

- ADAM, Jean-Michel. *Eléments de linguistique textuelle*, Liege, Mardaga, 1990.
- , *Le Récit*, Paris, P.U.F. 1984.
- , *Les textes: types et prototypes*, Paris, Nathan 1994.
- BENVENISTE, Émile. *Problemas de Lingüística General*, Vol. 1, México, Siglo XXI, 1974.
- , *Problemas de Lingüística General*, Vol. II, México, Siglo XXI, 1977.
- BRONCKART, Jean-Paul. "Psychologie des discours et didactique des textes", *Bulletin suisse de linguistique appliquée*, n°6, 1995; 27-42.
- , *Activité langagière, textes et discours*, Lausanne, Delachaux et Niestlé, 1996.
- , *Le Fonctionnement des discours*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé, 1985.
- , *Teorías del Lenguaje*, Barcelona, Herder, 1985.
- De WECK, Geneviève. *La cohesión dans le textes d'enfants*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé, 1991.
- DOLZ, Joaquim eta SCHNEUWLY, Bernard. *Pour un enseignement de l'oral*, Paris, E.S.F., 1998.
- DOLZ, Joaquim; PASQUIER, Auguste et BRONCKART, Jean-Paul. "La adquisición de los discursos, una competencia emergente", *Ensenyament/Aprenentatge de llengües*, Universitat Jaume I, Castelló, 1994; 59-74.
- GOLDER, Caroline. "Justification et négociation en situation monogérée et poligérée dans le discours argumentatif", *Enfance* n°1/2, 1992; 29-38.
- , "Le discours argumentatif: impact de la finalité communicative sur les formes textuelles produites", *Pratiques* n° 73, 1992; 119-125.
- , "Savez-vous argumenter à la mode des petits?", *Enfance* n° 4, 1993; 47-62.
- , *Le développement des discours argumentatifs*, Lausanne, Delachaux et Niestlé, 1996.
- SCHNEUWLY, Bernard. *Le langage écrit chez l'enfant*, Neuchâtel, Delachaux et Niestlé, 1988.
- Van DIJK, Theo. *Texto y contexto*, Madrid, Cátedra, 1980.

## I. ERANSKINA

| NARRAZIOAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | ARGUDIAKETAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>I. Ainguraketa enuntziatiboa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Diskurtso aldaketak egin eta zuzen markatzen ditu.</li> <li>b) Narratu bakarrik egiten dau eta zuzen.</li> <li>c) Diskurtso aldaketak egiten ditu, baina ez dau markarik erabiltzen.</li> <li>d) Toki-denporaren lokalizazioan akatsen bat egiten dau.</li> </ul> <p><b>II. Planifikazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Fase guztiak markatzen dauz.</li> <li>b) Hasierako egoera, egoera deusezten dauan elementua, gatazka, konponbidea/ Hasierako egoera, gatazka, konponbiderako elem., konponbidea/ Hasierako egoera, konplikazioa, gatazka</li> <li>c) Planifikazio barik.</li> </ul> <p><b>III. Gaien kohesioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Alternantzia, elipsia, izenordeak eta sustituzio lexikalak.</li> <li>b) Alternantzia eta elipsia.</li> <li>c) Beharrezko ez diran errepikapenak.</li> <li>d) Elipsia desagokiak.</li> </ul> <p><b>IV. Predikatuen kohesioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Lehen aldi burutugabea, lehen aldi burutua, baldintza-ondorioa eta beste batzuk (estrategia aberatsa).</li> <li>b) Lehen aldi burutugabea eta burutua (gitxienezko estrategia).</li> <li>c) Orain aldi desagokiak.</li> <li>d) Lehen aldi burutua bakarrik.</li> </ul> | <p><b>I. Ainguraketa enuntziatiboa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Deszentraziorik eza.</li> <li>b) Deszentrazioa + generalizazioa.</li> <li>c) Deszentrazio personalizatua.</li> </ul> <p><b>II. Planifikazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Gertaera + argum. + Kontsezioak, kontraargum. + jarrera.</li> <li>b) Gertaera + argum. eta autorearen jarrera.</li> <li>c) Jarrera + argum.</li> <li>d) Planifikazio bako argumentazioa, bizitako esperientzien kontakiz.</li> </ul> <p><b>III. Gaien kohesioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Sustituzio lexikalak.</li> <li>b) Polemikaren motiboa ez dabe berreskuratzen testuan zehar.</li> <li>c) Ez dago sustituziorik.</li> </ul> <p><b>IV. Predikatuen kohesioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Oraina, geroa + baldintza eta beste batzuk.</li> <li>b) Oraina, geroa, lehen aldi burutugabea, agintera.</li> <li>c) Oraina eta geroa.</li> </ul> <p><b>V. Konexibitatea</b></p> <p><b>V.1. Puntuazioa.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Ahapaldiak banatzen dauz.</li> <li>b) Akatsak</li> <li>c) Puntu eta jarraian.</li> </ul> <p><b>V.2. Konektoreak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Ordena logikoko perpaus elkartu eta menpekoak.</li> </ul> |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>V. Konexibitatea</b></p> <p><b>V.1. Puntuazioa.</b></p> <p>a) Ondo puntuatzen dau.</p> <p>b) Okerrak egiten ditu.</p> <p>c) Ez dau puntuatzen.</p> <p><b>V.2. Konektoreak.</b></p> <p>a) Konektoreen aniztasuna (Behin batean, bapatean, baina, eta orduan).</p> <p>b) Konektore urritasuna (eta, eta orduan).</p> <p>c) Urritasuna + errepikapenak.</p> <p><b>VI. Enuntziazio jarrera</b></p> <p>a) Ez dago igorle eta modalizazioaren ponderaziorik.</p> <p>b) Inplikazio desegokiak.</p> | <p>b) "eta" konexioaren oinarri.</p> <p>c) Konektore barik.</p> <p><b>VI. Enuntziazio jarrera</b></p> <p>a) Euren burua ziurtasuna erlatibizatzen inplikatzan dabenak.</p> <p>b) Derrigortasunak, nahiak, e.a. hartzaileagaz negoziatzen dabezanak.</p> <p>c) Ez dago igorle eta modalizazioaren ponderaziorik.</p> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

## II. ERANSKINA

### Estrategia egokiak / Abilezia diskurtsiboak

| <u>Abilezia diskur.</u><br>Testu Motak | Ainguraketa enuntziatiboa | Planifikazioa | Gaien ko-kohesioa | Predikatuen hesioa | Konexibitatea Puntuazioa | Konexibitatea Konektoreak | Enuntziazio jarrera |
|----------------------------------------|---------------------------|---------------|-------------------|--------------------|--------------------------|---------------------------|---------------------|
| Narrazio testuak                       | %50                       | %40           | %53               | %76                | %46                      | %36                       | %100                |
| Argudio testuak                        | %59                       | %39           | %53               | %36                | %53                      | %40                       | %56                 |

### Bataz besteko kalifikazioa / Eskolak

| <u>Eskolak</u><br>Testu motak | Eskola I   | Eskola II  | Eskola III | <b>GUZTIRA</b> |
|-------------------------------|------------|------------|------------|----------------|
| Narrazio testuak              | 6'1        | 7'2        | 6'1        | <b>6'46</b>    |
| Argudio testuak               | 5'5        | 3'8        | 3'7        | <b>4'3</b>     |
| <b>GUZTIRA</b>                | <b>5'8</b> | <b>5'5</b> | <b>4'9</b> | <b>5'4</b>     |

### III. ERANSKINA

#### Narrazio 1 (Garazi)

Bazen behin belardi batean bildotz bat belarra jaten zebilela eta jaten eta jaten zeozer mugitu zen belar artean eta bapatean otso isugarri bat agertuzen eta ezan zion:

– Zer egiten duzu emen hau nire belardia da. Eta orduan bildotsa dardarka asi zen. Orduan esan sion arkumeak:

– Bueno ba orain aldegingo dut. Eta orduan otsoak:

– Ez zu emen geratuko zara goze a daukat eta zu nere beskaria izango zara. Eta orduan bildotsak:

– Baina ez nauzu jango neri bakarrik postrea jango bearko duzu, nik eramango dizut leku batera. Eraman zion eta ezan zuen otsoak bi aldiz:

– Hau bai gazta hau bai gazta eta orduan otsoak pentsatu zuen gazta artesa eta orduan itsasora jausi zen eta ibaiak eramane zion.

#### Narrazio 2 (Asier)

Behin batean bildotza eta otsoak jatea gero bildotsa alde egin zen eta otsoa jatea nahi izan zuen arrapatu zuenean jan eta egarria euki zuen eta erre kara joan zen otsoa eta jausi egin zen

#### Narrazio 3 (Julene)

Behin batean otsoa eta bildotsa topatu ziren eta geroago burrukan hasi ziren eta egun bat egon ziren burrukan eta hurrengoan bildotsa eskapatu egin zen eta ez zuen bedarra jan bakarrik otsoak jan zuen bakarrik bedarra eta gero joan egin zen otsoa eta ez zen gehiago burrukarik ez zuen egin inoiz.

Egunero ez zen munduan burrukarik eta betiko olan egoten ziren herrian burruka barik

#### **Narrazio 4 (Pantxike)**

Bazan behin baten gau eder baten bildotsa bat. Bildotsa trankil-trankil egoan bedarra jaten. Bere atzean otso bat egoan goseaz hil.

azkenean otsoa bildotsaren gainera bota zan. Orduan otsoa esan eban:

–Au nere lekua da

–Parkatu ez neban jakin.

Oraintxe joango naiz

Baina otsoa ez eban itxi bildotsa joatea. Goseaz hil zegoelako. Eta bildotsa jan nahi eban. Etabildotsa esan eban pres egoala bere agaria izateko. Baina esan eban bildotsa:

–Badakit non dagoan proste bat.

–Postre bat?

–Bai eta badakit non dagoen

Orduan joan ziran. Otsoal pentsa ere ez uretara bota zan gaztaiaren bila. Bai ilargia zan eta ibaia eroan eban otsoa eta azkenean bildotsa ihes egin eban.

#### **Argumentazioa 1 (Aitzol)**

Txakur bat etxean izatea oso lagungarri da: etxea zaindu egiten duelako. Gainera txikia bada Alexi ez da azpértuko. Nire lagun batek txakur txiki bat dauka eta Alexi baino txikiagoa da baina bera arduratzen da txakurrari jaten ematen eta baita txakurra paseatzen ere. Larunbatetan batez ere, ordu batzuk ematen dituzte jolasean eta paseoan, hala ere orain dela hiru urte erosi zioten eta bera arduratzen da danarekin niri ere bihar erosi behar didate.

Beraz zuk erabaki baina egon zihur mesede asko egingo dizuela eta gainera ez duzu Alexirekin jolastu beharra izango.

Agur!

Aitzol

### **Argumentazioa 2 (Janire)**

Ni Janire Sololuze naiz eta (nahi nuke)  
zuei gutun hau idazten dizuet Alexisek txakurra  
Eduki nahi duenari buruz.

Nere ustez zuen iritzia oso gaizki dago  
Alexisek zakurra edukitzea nahi badu  
utzi iozue txakurra edukitzen.

Nik esaten dizuet usteko Alexisi txakurra  
edukitzen, bestela triste dago eta...  
Janire Sololuze.

### **Argumentazioa 3 (Jon)**

Mesedes Alexiri itxi gurekin etortzen zeren  
eta bestela ez dut lagunik eukingo eta ezingolitz  
hain ondo pasatuko agur!

### **Argumentazioa 4 (Arkaitz)**

Nik eskutitza hau bialtzen deusuet txakur bat  
erosi eskatzen deusuet. Nire urtebetetzerako  
txakur bat gura dot. Askok guztatzen zait  
txakurrak eta txikitik mesedes eskatzen de-  
usuet. Bueno bihar joango naz.

Askok maite zaituet zuen umea Alexin eta  
musu handi bat

Alexin